

7 Udal Administrazioa

IBARRAKO UDALA

BEHIN BETIKO ONARPENA: txoznei buruzko ordenantza arautzailea.

IBARRAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzak 2009ko abendauren 15en eginiko bilkuran, alegazioak ezetsi ondoren erabaki zuen onartzea behin betiko Ibarako Jaietan eta bestelakoetan jartzen diren Txoznen ordenantza arauemailea. Ordenantza-ren testu osoa argitara ematen da, horrela agintzen baitu apirilaren 2ko 7/85 legeak, toki Araubidearen Oinarriak arautzeari buruzkoak, 70.2 artikuluan.

Ibarra, 2009ko abenduaren 15a.—Alkatea.

(1916) (14699)

Ibarako udalerrian herriko jai edo bestelakoetan txosnak jartzeko udal ordenantza.

I TITULUA

HELBURUA

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen helburua da herri bidean txosnen instalazioa arautzea. Txosna horiek aire libreko tabernen antzekoak izango dira, ez profesionalak eta udalak baimentzen dituen herriko jai nahiz bestelakoetan jarriko dira.

II TITULUA

ARAUDI OROKORRA

2. artikulua. Ezaugarri orokorrak.

1. Instalazio hauek alde zuzenetik udaletxeak zehaztutako tokietan soilik jar daitezke, egoki irizitako txostenak egin ondoren.

Instalazioek pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko baldintza teknikoak beteko dituzte eta orokorrean jendea babestu eta hirugarrenei eragozpenik sortu gabe. Horretarako kasu bakoitzean arau - batzuk eskatuko dira, hala nola, egituren irmotasun eta funtzionamendua, suteen aurkako neurriak eta osasun nahiz garbitasun baldintzak.

2. Aire librean kokatuko diren txosnen baldintzak eta beren kokapena:

a) Ibarako udalak zehaztuko ditu kokapenak, zerbitzu teknikoek eginiko txostenak aintzat hartuta eta baita zenbat jarriko dien ere, ospakizunaren eta erabilgarri dauden eremuen arabera Herriko lurak ez direnetan

jarriz gero, instalatzaileek jabearen baimena beharko dute.

b) Txosnatzat hartzen da modulu bakarreko eraikin arina edo aurrefabrikatua, material egokiarekin egina instalazioaren irmotasuna bermatzeko eta garbi erraza izateko.

c) Txosna bakoitzaren gehienezko neurriak 32 m² (8 x 4 metro) dira, baldin eta udalak behar bezala arrazoituta, neurri handiagokoak baimentzen ez baditu.

d) San Bartolome plazako txosnen kasuan 5 txosna onartuko dira gehienez lerrokatuta.

3. Udalak zehazturiko egunetan hasi eta amaituko da jarduera, eta hori interesdunari jakinaraziko zaio alkate Dekretu bidez eta bukatu ondoren 48 orduko epean erretiratuko da.

3. artikulua. Instalazioaren baldintzak.

Txosnak jartzeko baldintzok bete behar dira:

a) Osasun arautze arloan urriaren 3ko 2.817/1983 Errege Dekretua, Jangela Kolektiboen Araubide Osasun Teknikoa hartuko da kontuan, hain zuzen III Titulua «garaiko establezimenduen baldintzak» izeneko edo hori ordeztzen duen araudia.

b) Debekatuta dago edari alkoholodunak eta tabakoa saltzea 18 urtetik beherakoei, horrela agintzen baitu azaroaren 11ko 15/1988 legeak eta horretarako leku ikusgarrian kartel bat jarriko da, 42x30 cms debeku horren berri emanez.

c) Debekatuta dago 16 urtetik beherakoak txosnetan egotea eta bertan aritzea.

d) Zerbitzu publikoko baso, plater eta antzekoak erabilera bakarrekoak izango dira.

e) Zaborrak botatzeko zabor poltsetara botako dira, udalak ezarritako tokietan. Behin poltsak beteta, azkar eramango dira behar den tokira.

f) Garbitasuna ospakizuna amaitu eta hurrengo goizeko 8ak baino lehen egingo da.

g) Debekatuta dago materiala pilatzea horretarako jarritako lekuetatik kanpo.

h) Janariak ezin dira zoruan utzi.

i) Instalazioak behar bezala goitik itxita eta argizatuta egongo dira eta jendea biltegira ez sartzeko moduan jarrita.

j) Ur edangarri nahikoa izango dute, harraskara nahiz eskuak garbitzeko konketara konektatua ontziak garbitu ahal izateko.

k) Hustubideak estolderi sarera konektatuak izango dira.

l) Janaria dagoen tokia, leuna, inerteza, ez xurgatzailea eta erraz garbitu eta desinfektatzekoa izango da.

m) Zamalanak jendeari irekita dagoen ordutegitik kanpo egingo dira eta beti ere, 12,00ak baino lehen.

n) Martxan jarri aurretik Eusko Jaurlaritzako Osasun sailaren ikuskatzea egingo da eta honen oniritzia beharko du, interesdunak hark agindutakoa beteko duelarik.

ñ) Bozgorailu eta musika instalazioek potentzia mugatzailea eramango dute, indarrean dagoen legeriak onartutako baino soinu neurri handiagoak eman ez daitezen.

o) Musika instalazioak kasu hauetan ezingo dira erabili:

— Su artifizialak daudenean.

— Jaietako udal arduradunek horrela erabakitzen badute jai programako ekitaldiak direla eta.

p) Ekitaldiak jai programa ofizialaren mende izango dira edo programa horren aldaketan mende.

q) Janari eta edarien prezioak txartel batean, ikusteko moduan jarriko dira.

r) Itxi baino ordu erdi lehenago megafonia itzali egingo da.

s) Txosnak jartzeko baimena duten kirol nahiz kultur taldeek ardura zibileko poliza sinatu behar dute eta azaroaren 10eko 4/1995 legeak, Ikuskizun publiko eta Jolas jardueri buruzkoak ezarritako kopurua baino txikiagoa izan gabe.

t) Txosnetan jarriko diren ohar eta abisu guztiak elebitan izango dira.

4. artikulua. Tasak.

1. Txosnak instalatzeak ordenantza fiskalean jasotako tasak ordaintzea eskatzen dio adjudikazio-har-tzaileari eta baita industria buletina ordaintzea ere.

2. Udalak baimendutako jai bat antolatzen dutenen kasuan, ez dute tasa eta buletina ordaindu beharrik izango, soilik ekitaldi horretan eta gainerako txosnek dagokien tasa ordaindu beharko dute.

3. Herriko jaietan onuradun guztiek ordaindu beharko dute tasa eta industria buletina.

5. artikulua. Eskaerak.

1. Edozein izaera pribatuko pertsona juridikok esak dezake txosna instalatzea baldintza hauek betetzen baditu:

a) Elkarteen Erregistro Orokorrean legeztaturiko elkartea.

b) Ibarran izatea egoitza soziala.

c) Bere helburu nagusia kirol, kultur edo programa sozialak udalerrian finantzatzea, irabazi asmorik gabe jardutea edo udalerriz gaindiko programak izanik ere udalaren ustez gizarte interesa baldin badute udalerrian.

d) Eskaera aurretik bi urtez gutxienez udalerrian zerbitzuka ematea.

Salbuespen gisa baldintzok betetzen ez dituzten elkarteak onartuko dira, beti ere udalak uste baldin badu gizarte mailako zeregina betetzen dutela.

Orokorrean elkarte politiko eta sindikatu elkarteak kanpo geldituko dira.

2. Eskaerak udaletxeko erregistroan aurkeztuko dira, jarduera hasi baino 45 egun aurretik eta erakundeak baimendutako pertsonak sinaturiko eskabidearen bitartez.

3. Eskaerarekin batera txosnarekin finantza nahi diren proiektu, programa eta gainerako zerbitzuen memoria aurkeztuko da. Irabazi hori udalerrri barruko jardueretan inbertituko da. Horrez gainera instalazioaren krokisa bere neurri eta guzti ere aurkeztu beharko da.

4. Elkarte edo erakunde bakoitzak eskaera bakarra egingo du eta lizentzia bakarra jasoko du.

6. artikulua. Adjudikazioa.

1. Aurreko atalean zehazturiko agiriekin eskaera jaso ondoren, Udalak adjudikazioaren egokitasuna aztertuko du eta horretarako onartu eta baztertuen zerrenda bat egingo du eta baztertuak izatearen arrazoiak emango ditu, beti ere, Ordenantza honetan jasotako baldintzen bat bete ez delako.

2. Onartuen artean postu baino eskaera gehiago baleude, honako adjudikazio irizpide hauek ezarriko dira:

- a) Eskatzailearen jarraitasun, egonkortasun eta kaudimena, berak burutu behar duen jardueraren kultur, kirol edo gizarte arloan.
- b) Beren jardueraren ekarpena udalerriko kultura, kirola edo gizarte ongizatearen zabalkundearen.
- c) Erakundearen programan onuradun suerta daitezkeen pertsonen kopurua.
- d) Udalak, programa edo proiektuan ikusten dituen bestelako berezitasun edo ezaugarriak.

3. Berdinketa balego zozketa bidez ebatziko da.

4. Adjudikazioa jarduera hasi baino 15 egun lehenago egingo da, alkate ebazpen bidez.

7. artikulua. Esleipendunek aurkeztu beharreko agiriak.

1. Aire zabaleko eremuak esleitu ondoren eta 10 eguneko epean agiriok aurkeztuko dira udaletxean:

- a) 200 euroko fidantza ezarri dueneko egiaztagiria. Fidantza hori txosna ezarri deneko tokia garbitzeko izango da eta ordenantza honetatik eratorritako betebeharrekin betetzeko.
- b) Instalazioak segurtasun, sendotasun, osasungarritasun baldintzak betetzen dituela dioen egiaztagiria, eta horrez gain instalazio osagarriena (argindarra, ur edangarria). Egiaztagiria eskumeneko teknikariek egina izango da.
- c) Ardura zibileko polizaren kopia eta ordainagiria.
- d) Argi loturaren buletina.
- e) Tasaren ordainagiria eta industria buletinarena.

2. Agiriok emandako epean aurkezten ez badira baimena kenduko da.

3. Udaletxeko zerbitzu tekniko-sanitarioek aurkako txostena egingo balute ikuskatzearen ondotik, 24 orduko epea egingo da aldaketak egiteko eta betetzen ez badira baimena kendu egingo da.

4. Behin instalazioa bukatuta, udaletxeak ikuskatuko du jakiteko baldintzak betetzen diren edo ez.

5. Adjudikazio-hartzaile bakoitzak ordezkari bat izendatuko du udaletxearen aurrean eta beti aurkitzeko moduan izango da.

III TITULUA

ZIGOR PROZEDURA

8. artikulua. Arau-haustea.

1. Arau-hauste arinak izango dira honakoak:

- a) Ordenantza honetan jasotakoa ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larri ez bada eta baita udalak eginiko eskakizunetan lizentzia ematean nahiz ondoren.

2. Arau-hauste larriak:

- a) Instalazioa ordutegitik kanpo irekitzea.

- b) Zarata neurriak gainditzea.
 - c) Udal kontrolak egiteari uko egin edo horiek eragozte.
 - d) Bi arau-hauste arin egitea.
3. Arau-hauste oso larriak:
- a) Instalazioa udal lizentziarik gabe irekitzea.
 - b) Kokapen eremuak ez errespetatzea edo instalazioak jarri eta kentzeko epeak ez errespetatzea.
 - c) Beirazko ontzietan ematea edariak.
 - d) Herri erabilera, zerbitzu edo ondareari kalte larriak egitea.
 - e) Bi arau-hauste larri.
 - f) Esleituriko jabegoa aldatzea edo txosna bakoitzari ustiaketa lagatzea, guztiz edo era partzialean.
 - g) Instalazioa aurreikusitako edo baimendutako erabileratik kanpo erabiltzea.
 - h) Herri osasunarentzat kaltegarri izan daitezkeen osasun neurriak ez betetzea.

9. artikulua. Zigorrak.

1. Aurreko atalean zehazturiko arau-hausteengatik jarritako zigorra ordenantza honen arabera ezarriko du alkateak, horretarako izendaturiko instruktoarek proposatuta, beti ere legeari jarraituz eta interesdunari entzualdia eman ostean.

- 2. Arau-haustea arinengatik ezarritako zigorra finantzaren %50 galtzea izango da.
- 3. Arau-haustea larriengatik ezarritako zigorra finantzaren %100 galtzea izango da.
- 4. Arau-haustea oso larriengatik ezarritako zigorra:

— Finantza osoa galtzea eta ginerako ondoko neurri hauetakoren bat:

- a) Baimen eta lizentzia kentzea.
- b) Hiru urtetan txosnak jartzea galaraztea.

- 5. Udalak, egoki ikusten badu beste eskumeneko erakunde bati salaketak izapidetzeko eska diezaioke.

Zigorrek alde batera utzita, udalak erabaki dezake finantzatik kentzea berak lagatako materialari dagokiona, ez badira itzali edo egoera txarrean itzuli baldin badira; baita udalak ordaindu dituen gastuak txosna instalatzerakoan edo okerreko funtzionamenduagatik; udal garbiketagatik eta orokorrean beste kalte-ordainengatik. Hori guztia, bestelako neurriak baztertu gabe.

Kalteen gastua ezarritako finantza baino handiagoa bada, beharrezko egintzak burutuko dira kobratze osa egin dadin.

- 6. Udalak ixtea agindu dezake ikusten badu eskatutako baldintzak ez direla betetzen edo instalazioak arriskua dakarrela edo osasun publikorako arriskutsu izan daitezkeela osasun neurriak ez betetzeak. Itxiera aginduko du akatsak konpondu arte eta hori guztia dagozkion zigorrek baztertu gabe.

Ordenantza hau indarrena sartuko da apirilaren 2ko 7/1985 legeak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak 70.2 art.an xedaturikoari jarraiki.

Indarrena izango dira Ordenantza honetako arauak ahalik eta aldatu edo bertan behera utzi arte.